

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA GALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

2012-13 IKASTURTEA



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA  
evaluación diagnóstica



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN  
EREDU BERRIA

## AURKEZPENA

Ebaluazio diagnostikoa (ED) hiru ikasturtetan (2008-09tik 2010-11ra) gauzatu da Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen artean funts publikoekin finantzaturako Euskadiko ikastetxeetan, LOEren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako curriculumara xedatzen duen Dekretuaren arabera. Euskadiko ikastetxe guztiek, emaitzak jaso eta aztertu ondoren, **Hobekuntzarako esku-hartze plana** gauzatu dute.

2011-12 ikasturtean ez da ebaluaziorik egin bi helburu nagusi betetzeko: alde batetik, EAEan erabiltzen den ED ebaluazioaren ereduaz aztertzea eta berrikustea; bestetik, ikastetxeei hobekuntza-prozesuak aztertzeko behar duten denbora ematea.

Gogoeta aldi horren ondoren, dokumentu honek ED ebaluazioan 2012-13 ikasturtetik aurrera izango diren aldaketak jasotzen ditu. Aldaketek honako helburu hauek bete nahi dituzte:

- a) Falta diren oinarrizko konpetentzien **ebaluazioa osatzea**.
- b) Orain arte ebaluatu diren konpetentzia finkoen **zenbait dimentsio sakonkiago ebaluatzea**.
- c) EAEan gauzatzen diren ebaluazioen **egutegia arrazionalizatzea**.
- d) **Ikastetxeak ED ebaluazioaren partaide bihurtzea eta zati baten erantzukizuna ematea**, hobekuntza planetako proposamenak barneratzen laguntzeko.
- e) Ikastetxeko eta familiarentzako **txostenak hobetzea**, eta oro har emaitzak hezkuntza-komunitateari eta gizarteari jakinarazteko prozesua hobetzea.
- f) Ebaluazio probetan **baliabide digitalak gero eta gehiago sartzeko eta zabaltzeko**, ED ebaluazioan ingurumenaren jasangarritasunari laguntzeko, emaitzen arteko konparagarritasuna arriskuan jarri gabe.
- g) **Ikastetxeetako hobekuntza planak**, laguntza zerbitzuen (Berritzegune) eta ikuskaritzaren aholkularitza **indartzea**.



# 1. EB. DIAGNOSTIKOAREN BALANTZEA. 2009-2011

Ebaluazio diagnostikoaren probak eta galdera-sortak gauzatu diren hiru ikasturte horien balorazioan hiru alderdi positibo nagusi azpimarra daitezke:

## a) Euskadiko hezkuntza sisteman ebaluazioaren kulturari honako hauen bidez emandako bultzada:

- Ikastetxeei ikasleek lortutako konpetentzia mailari buruzko informazioa ematea, antzeko ikastetxeetako ikasleekin konparaturik (irakasteredua eta hezkuntza sarea, maila sozio-ekonomikoa).
- Ikastetxe guztietan hobekuntzarako esku-hartze planak abian jartzea.
- Euskadiko hezkuntza sistemaren egoeraren erradiografia zabala.

## b) Gardentasuna eta informazioa:

- Emaitzak ikastetxeei jakinaraztea eta gizarte osoan zabaltzea.
- Datuen isilpekotasun-bermea, inolako sailkapenik egin gabe.
- Proba estandarizatuak eta azterketa estatistikoaren prozesua nazioarteko ohiko proben eta azterketen arabera egitea.
- Prozesua kalitate-eredu bati jarraituz kudeatzea.

## c) Parte hartzen duten Hezkuntza Sailordetzako **zerbitzuen koordinazioa eta elkarlana indartzea** (ISEI-IVEI, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza eta Hezkuntzako Ikuskaritza).

Hala eta guztiz ere, hiru ikasturte horietan hurrengo ikasturteetan aurre egin beharko zaien zenbait **erronka** ere azaleratu dira, hala nola:

- Oraindik ebaluatu ez diren oinarrizko konpetentzien ebaluazioa osatzea eta zenbait dimentsiotan sakontzea.
- Ikastetxeek ED ebaluazioan duten inplikazioa eta partaidetza hobetzea, **barne ebaluazioa** bultzatuz.
- Ikastetxeetan gogoeta eta prestakuntza errazteko prozesuak bizkortzea eta sendotzea.
- Teknologiaren erronkari aurre egitea, eta probetan paperaren orde euskarri informatikoa erabiltzea.
- Berritzeguneetako eta Ikuskaritzako teknikariek egiten duten aholkularitza-lana indartzea.
- Denboran zehar iraun dezakeen ebaluazio eredu bat definitzea, antolamenduaren aldetik bideragarria eta ekonomikoki iraunkorra.

## Ebaluazio diagnostikoaren eredu berria 2013



Ebaluazio diagnostikoaren eredu berriak aurrekoaren oinarrizko ezaugarriak mantentzen ditu: zentsuko ebaluazio estandarizatua; ikasle guztientzako proba eta gauzate-prozesu berdinak. Horrez gain, hiru konpetentzia finkoak mantentzen dira: euskara, gaztelania eta matematika. Konpetentzia horiei buruzko datu konparagarriak lortuko dira.

**Bost aldaketa** nagusi daude:

- ebaluazioan **hiru urteko zikloak** antolatzen dira: bi ikasturtean ebaluazio probak izango dira eta hirugarrenean ez da kanpoko probarik egingo;
- ED ebaluazioa bi ataletan antolatuko da: **kanpoko aplikazioa**, Hezkuntza Sailaren ardura, eta **barneko aplikazioa**, ikastetxearen ardura;
- proba batek **zientziarako konpetentzia eta gizarte eta herritartasunerako konpetentzia** neurtuko ditu. Proba hori **ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako** probarekin txandakatuko da;
- **idazmena** ikastetxe **barneko aplikazioan** neurtuko da derrigorrez, eredu eta irizpide komunetan oinarriturik;
- **gainontzeko konpetentziak** progresiboki ebaluatuko dira, emaitzetan oinarrituta prestakuntza eta aholkularitza prozesuak bultzatu ahal izateko.

Aldaketa horien arrazoa eta ezaugarriak dokumentu honen ondorengo orrialdeetan azalduko dira.



## 2. EREDUA, EZAUGARRIAK ETA EGUTEGIA



### 1. Nolakoa izango da Ebaluazio diagnostikoaren egutegia?

EAEko ebaluazioen egutegi berriak hiru urteko zikloak ditu (ED ebaluazio probak ondoz ondoko bi ikasturtetan eta hirugarren ikasturtean ez da probarik egingo), ED ebaluazioa beste ebaluazio proiektu batzuekin harmonizatu ahal izateko, batez ere hiru urtez behin gauzatzen den PISA ikerlanarekin.

Ondorengo taulan datozen ikasturteetarako aurreikusten den ED ebaluazioaren bigarren zikloko eskema azaltzen da:

	Ikasturtea	LEHEN HEZKUNTZA	DBH
2. zikloa	2012-2013	Ebaluazio diagnostikoa 2013	Ebaluazio diagnostikoa 2013
	2013-2014	Ebaluazio diagnostikoa 2014	Ebaluazio diagnostikoa 2014 PISA 2015-PILOTUA
	2014-2015	Hobekuntzarako esku-hartze planak berrikustea	Hobekuntzarako esku-hartze planak berrikustea PISA 2015

### 2. Zergatik finkatu dira hiru urteko zikloak?

Egutegi berriaren aldeko irizpideak honako hauek dira:

- Ikastetxeek ez dute ikasturte berean ebaluazio proiektu batzuk gauzatzearen gehiegizko zama jasan behar. PISA ikerlana euskal hezkuntza sistemarako ebaluazio estrategikoa denez, eta bertan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erdiak baino gehiagok parte hartzen duenez, **PISA ikerlana gauzatzen den ikasturteetan ez da ED ebaluazio probarik egingo.**
- ED ebaluazio probarik egiten ez den ikasturteetan ikastetxeetan zereginik nagusia hobekuntza prozesuei buruzko gogoeta egitea izango da, eta, baita ere, ED ebaluazioaren eredia hobetzeari buruzko gogoeta egitea.

### 3. Nolako abantailak ditu egutegi berriak?

Egutegi berriak ebaluazio prozesuak arrazionalizatu egiten ditu, eta gainera zenbait aurrerapen eskaintzen ditu ED ebaluazioaren lehen zikloarekiko:

- Konpetentzia finkoetako (*Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa eta Matematikarako konpetentzia*) emaitzen egonkortasuna eta konparagarritasuna bermatzen ditu.

- Oinarrizko konpetentzia aldakorrak modu zabalagoan eta zentuzkoagoan ebaluatzeke aukera ematen du, datu konparagarriak lortzeko behar den denbora murrizten baitu.
- Arestian aipatutako ebaluazio proben gehiegizko zama eragozten du, eta ikastetxeei gogoeta egiteko eta hobekuntza planak ebaluatzeke behar den denbora eskaintzen die.
- Hezkuntza sistemari ikerketak eta analisi espezializatuak egiteko aukera eskaintzen dio.



#### 4. Zeintzuk dira Ebaluazio diagnostikoaren oinarrizko ezaugarriak?

ED ebaluazioaren eredu berriak ezaugarri nagusiak mantendu egiten ditu:

- **Zentsuko proba:** Lehen Hezkuntzako 4. milako eta DBHko 2. mailako ikasle guztiek parte hartzen dute.
- **Proba estandarizatua:** proba eta galdera-sorta komunak, irizpide homologatu, estandarizatu eta gardenekin aplikatutakoak.
- **Izaera hezigarria eta orientagarria** ikastetxeentzako eta **informatiboa** familientzako. Hezkuntza etapen erdialdean gauzatzen da, eta horrek laguntza eta hobekuntza neurriak hartzeko aukera ematen du.
- Erantzukizun bikoitza finkatzen du: **kanpoko aplikazioa**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren ardura, eta **barneko aplikazioa**, ikastetxeen ardura.
- **Isilpekotasuna:** Datu pertsonalak erabateko zuhertasunez tratatzen eta babesten dira; emaitzak erabat gordetzen dira, ikastetxeen arteko sailkapenak egitea eragozteko.
- **Ez du curriculum ebaluazioa ordezkutzen, eta ez du inolako eragin akademikorik ikasleentzako.** ED ebaluazioak ikasleek eskuratutako ikaspenak egoki hautatzeko eta askotariko egoera eta inguruneetan erabiltzeko duten gaitasuna ebaluatzen du.



#### 5. Zer mantentzen da eta zer aldatzen da orain arte izan dugun ED ebaluazioaren ereduari?

##### Mantentzen dira:

- ED ebaluazioaren helburuak.
- Oinarrizko ezaugarriak.
- Proben gaitasunezko izaera eta egitura.
- Probak gauzatzeko egun kopurua (bi).

##### Aldatzen dira:

- *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* idazmena eta mintzamina ikastetxeek ebaluatuko dituzte (ebaluazioaren barneko aplikazioa deitzen den partean).
- *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* proben iraupena murriztu egingo da (ebaluazioaren kanpoko aplikazioa).
- Ikasturte bakoitzean ebaluatzen diren konpetentzien kopurua handitu egingo da.
- Probak ordenagailuaren bidez gauzatu dira (Eskola 2.0 ekipamendua).

Jarraian Ebaluazio diagnostikoko proben egitura azaltzen da:



# EAEko ZENTSUKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EGITURA

## KANPOKO APLIKAZIOA

PROBA KONTROLATUA ETA ESTANDARIZATUA  
(Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)

KONPETENTZIA  
FINKOAK

1. **EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA:**
  - Entzumena.
  - Irakurmena.
2. **GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA:**
  - Entzumena.
  - Irakurmena.
3. **MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA.**

KONPETENTZIA  
ALDAKORRAK

4. **TXANDAKAKO PROBA**
  - **ZIENTZIA-GIZARTEA** (Gizarte eta hiritartasuna + Zientzia, teknologia eta osasuna).
  - **ATZERRIKO HIZKUNTZA (INGELESA)**
5. **ASKOTARIKO PROBA**, lagin bidezkoa: **BESTELAKO KONPETENTZIAK / PROBA PILOTUAK / IDAZMENEKO PROBAK.**

### TXOSTENAK

- ikasle bakoitzarena, familiarentzat
- ikastetxekoa
- Euskadikoa

## BARNEKO APLIKAZIOA

Ikastetxeak gauzatu beharrekoa

- A.** Hezkuntza Sailak **emandako ebaluazio-ereduak** (proba, aplikatzeko eta zuzenketarako irizpideak, jarraibideak...).
- **Idazmena** hiru hizkuntzetan (derrigorrezkoa).
  - **Mintzamena** hiru hizkuntzetan (borondatezkoa).

- B.** Ikastetxeak, bere curriculum proiektuaren arabera, sortu/egokitutako tresnak eta probak.

### GALDERA-SORTAK


- ikasleenak.
- ikastetxekoak.

## 6. Zenbat aldi ditu ED ebaluazioak?

ED ebaluazioa 3 alditan egituratzen da:

- Sentsibilizazio**, prestaketa eta erabakiak hartzeko **aldia**.
- Probak aplikatzeko**, analisiak eta txostenak egiteko **aldia**, ebaluazioaren kanpoko zein barneko atalean.
- Hobekuntza aldia**; esku hartzeko proposamenak egiteko aldia edo, hala balegokio, aurreko ikasturteetako planetan aurreikusitako neurriak berrikusteko edo egokitzeko aldia.

Kanpoko ebaluazioko probak bi goizetan zehar aplikatuko dira, orain arte bezala, eta haien iraupena aurreko hiru ED ebaluazioko proben iraupenaren antzekoa izango da. Proben iraupena ezberdina izango da bi etapetan (Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan), ikasleen ezaugarriei egokiturik (*ikus 24. galdera*).





### 3. OINARRIZKO KONPETENTZIEN EBALUAZIOA



#### 7. Nolako maiztasunez ebaluatuko dira oinarrizko konpetentziak?

6. orrialdeko eskeman azaltzen den bezala, zein maiztasunez ebaluatuko diren kontuan izanik, bi motatako konpetentziak bereizten dira:

- **Konpetentzia finkoak:** ED ebaluazio guztietan ebaluatuko dira.
- **Konpetentzia aldakorak:** txandaka ebaluatuko dira, aldian behin berraztertuko den egutegi baten arabera.

#### 8. Zeintzuk izango dira konpetentzia finkoak?

Orain arte bezala, ED ebaluazio guztietan honako konpetentzia hauek ebaluatuko dira:

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**
- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**
- **Matematikarako konpetentzia**

Hiru konpetentzia horiek ED ebaluazioaren muina osatzen dute, eta ikastetxeek esplizituki adierazi dute konpetentzia horiek ebaluatzen jarraitzearen aldeko iritzia.

#### ED EBALUAZIOAREN KONPETENTZIA FINKOAK

#### 9. Zergatik konpetentzia horiek eta ez beste batzuk?

Finkotzat hautatutako konpetentziek izaera instrumentala dute, eta ikastetxeak eta ikasleak zein egoeratan dauden azaltzeko egokiagoak dira. Konpetentzia horien garapenak esparru zabala hartzen du curriculumean eta gainontzeko konpetentziei eragiten dio.

Hala eta guztiz ere, erabaki hori berrikus daiteke, ondorengo ebaluazioetan konpetentzietako bat beste maiztasun batez ebaluatzea komenigarritzat joko balitz.

#### 10. Zer aldatu da Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan?

Ikasleen *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzien* kanpoko ebaluazioa **entzumenak eta irakurmenak** osatuko dute. *Idazmena* orain arteko hiru ebaluazioetan neurtu da, baina orain ez da ED ebaluazioaren kanpoko probetan ebaluatuko; hala ere, derrigorrezkoa izango da ikastetxeek gauzatuko duten ebaluazioaren barneko aplikazioan.

Erabaki horren arrazoiak honako hauek dira:

- *Idazmeneko* proben zuzenketa prozesu konplexua da, eta zenbait desadostasun sortu ohi dira balorazioetan. Izan ere, emaitzen aldakortasuna ikusita, komenigarritzat jo zen ED09 ebaluaziotik aurrera *idazmena Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* batez besteko puntuazioan ez sartzea.
- Hala ere, interesgarria eta ezinbestekoa iritzi da ED ebaluazioaren eremuan *idazmena* mantentzea. Ikasleek eskuratutako trebetasun mailaren ikuspegi orokorra lortzeko dimentsio-giltzarria da, inolako zalantzarik gabe.

Beraz, *idazmena* mantendu egiten da ebaluazioan, eta **derrigorrezkoa izango da ED ebaluazioaren barneko aplikazioan (ikus 21. eta 22. galderak)**. Euskadiko emaitzak lortu ahal izateko, *idazmeneko* proba ikasleen lagin bati aplikatuko zaio modu kontrolatuan.

Beste alde batetik, orain arte ez da konpetentzia horretako *mintzamena* ebaluatu, ezinezkoa baitzen 38.000 inguru ikasleri elkarrizketa pertsonal bat egitea. Eredu berrian, ahal delarik, trebetasun hori ED ebaluazioan sartu nahi da barneko atalean. *Mintzamenaren* ebaluazioa borondatezkoa izango da eta metodologia komun batekin gauzatuko da (*ikus 23. galdera*).



### 11. Zer aldatzen da *Matematikarako kompetentzia*?

*Matematikarako kompetentziaren* ebaluazioak **ez du funtsezko aldaketarik izango**. ED ebaluazio guztietan ebaluatuko da. Hala ere, hainbat ikastetxek hala eskaturik, ikasturte bakoitzean lehentasuna dimentsio bati emateko aukera aztertuko da. Ikasturte bakoitzean dimentsioetako bateko item kopurua handitu egingo zen informazio zehatzagoa lortu ahal izateko asmoz. Horrela, irakasleek eta ikastetxeek kompetentziari buruzko informazio zehatzagoa izango zuten.



### ED EBALUAZIOAREN KONPETENTZIA ALDAKORRAK

#### 12. Zergatik egin dira aldaketak zati aldakorrean?

Lehen hiru ebaluazioetan indarrean egon den ereduaren arabera, ikasturte bakoitzean kompetentzia “aldakor” ezberdin bat ebaluatu da. ED09 ebaluazioan *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia* ebaluatu zen, ED10 ebaluazioan *Gizarte eta herritartasunerako kompetentzia*, eta azkenik, ED11 ebaluazioan *Atzerriko hizkuntzazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia (ingelese)* ebaluatu zen.

Egitura horri esker, askotariko kompetentziak ebaluatu ahal izan dira eta baita gure hezkuntza sisteman hobekuntzarako esparruak identifikatu ere. Orain arteko eredu horrelako kompetentzia bat berriro ebaluatu arteko aldia luzeegia zen, eta hori zen bere eragozpenik handiena.

#### 13. Nolako eragozpenak daude oraindik ebaluatu ez diren oinarriko kompetentziak ebaluatzeko?

Oraindik ebaluatu ez diren oinarriko kompetentzien ebaluazioak zenbait eragozpen ditu:

- *Informazioaren trataerarako eta gaitasun digitalerako kompetentzia* Eskola 2.0 programari hertsiki lotua dago eta interes berezkoa da, baina kompetentzia horren ebaluazioan oso esperientzia urriak daude erreferentzia bezala erabiltzeko.
- *Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia, Giza eta arte-kulturarako kompetentzia eta Ikasten ikasteko kompetentzia* ebaluatzeko esperientziak ere oso urriak izan dira, eta oraindik eztabaidatzen ari dira.

Beraz, kompetentzia horiek kanpoko proba estandarizatuen bidez nola ebaluatu daitezkeen hausnartzen segitu behar da oraindik ere (*ikus 17. galdera*).

#### 14. Zertan da txandakako proba?

ED ebaluazio guztietan, hiru konpetentzia finkoetako probez gain, urte batetik bestera txandakatuko den konpetentzia bateko proba egingo da: ikasturte batean **zientzia-gizarterako konpetentziako proba mistoa** egingo da (*Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* itemak eta *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziakoak* izango ditu), eta hurrengo ikasturtean **Atzerriko hizkuntzazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (ingeleza)** ebaluatuko da.

Eredu horri esker, hiru konpetentzia horiei buruzko informazioa hiru ikasturtez behin lor daiteke.

#### 15. Nolako ezaugarriak izango ditu “zientzia-gizartea” konpetentziako proba mistoak?

*Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* eta *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia* proba bakar batean ebaluatzeko, honako ezaugarri hauek dituen proba bat sortu behar da:

- Liburuxka ezberdinak egongo dira, eta talde bakoitzeko ikasleek egingo dituzte. Ikasleen parte batek liburuxka

bat erabiliko du, eta beste parteak, bestea.

- Liburuxketan beste liburuxketako item komun batzuk izango dira eta beste item batzuk, ezberdinak. Liburuxka batzuk erabiliko direnez, konpetentzia modu zabalagoan ebaluatu ahal izango da.
- Ikastetxeak, aipatutako bi konpetentziei dagokienez, bere egoera orokorrari buruzko informazioa jasoko du, baina ez ikasle bakoitzaren emaitzei buruzkoa, proba ez baita izango erabat komuna. Eredu hori PISA ikerlanean erabiltzen da.

#### 16. Nolako izango da Atzerriko hizkuntzazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako proba?

ED ebaluazioaren aldiko bigarren ikasturtean ebaluatuko den *Atzerriko hizkuntzazko (ingeleza) hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* probak *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* proben egitura bera izango du. Hau da, *irakurmena* eta *entzumena* ebaluatuko dira. *Idazmena* ikastetxeak ebaluatu beharko du derrigorrez, eta *mintzamenaren* ebaluazioa borondatezkoa izango da (*ikus 21., 22. eta 23. galderak*).

#### 17. Zer aurreikusten du eredu berriak oraindik ebaluatu ez diren konpetentziak direla eta?

*Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia, Giza eta arte-kulturarako konpetentzia, Ikasten ikasteko konpetentzia eta Informazioaren trataerarako eta gaitasun digitalerako konpetentzia* ebaluatzeko zenbait alderdi hartu behar dira kontuan:

- Zeharkako izaera handiagoko konpetentziak dira, eta kasu guztietan ez dute berriazko curriculum, ezta ere kasurik gehienetan konpetentzia garatzeko ardura duen berriazko irakaslerik. Konpetentziaren trataera irakasle taldearen eskuetan geratzen da ikastetxeko curriculum proiektuaren bitartez.
- Lehen aipatu den bezala, horrelako konpetentziak ebaluatzen ez dago esperientzia handirik, eta kasu batzuetan ez dago erreferentzia gisa erabil litekeen aurretiazko eredurik. Gainera, konpetentzia horiek kanpoko ebaluazio eredu baten bidez egoki ebaluatu ote daitezkeen aztertzerakoan, zalantza handiak izaten dira.

### 18. Nola ebaluatuko dira kompetentzia horiek?

Arestian aipatutako alderdiak kontuan izanik, komenigarria litzakete kompetentzia horien ebaluazio prozesua arreta handiz gauzatzea eta hezkuntza komunitateari ematen zaion informazioa arretaz tratatzea. Hartara, kompetentzia horien lehen ebaluazioak honako ezaugarri hauek izango ditu:

- **Neurketa zabala:** zenbait liburuxka ezberdin erabiliko dira, ebaluazioa sakonagoa izan ahal izateko eta informazio zehatzagoa lortu ahal izateko.
- **Erkidegoko lagin bidezko proba:** Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeen eta ikasleen lagin adierazgarri bat ausaz hautatuko da probak egiteko.
- **EAEko emaitzak** lortuko dira, baina ez ikastetxeoak ezta ikasle bakoitzarenak ere. Emaitzek honako honetarako aukera eskainiko dute:
  - kompetentzietako bakoitzaren **egoera** erkidego mailan ezagutu eta **baloratu**;
  - emaitzetan oinarriturik, prestakuntzarako, aholkularitzarako eta materiala sortzeko **proposamenak bultzatu**.

### 19. Bada aldaketarik ikasleen galdera-sortan eta ikastetxeko galdera-sortan?

Galdera-sortek jasotzen duten informazioa giltzarria da ED ebaluazioko emaitza asko interpretatu ahal izateko.

Horregatik zenbait aldaketa eta hobekuntza proposatu dira:

- Alderdi orokorrez gain, ebaluazio bakoitzean zenbait gai sakonki tratatuko dira.
- Proba web-aren bidez egingo da, horretarako bereziki kontratatutako kanpoko teknikarien laguntzaz.
- Aurreko ebaluazioetan bezala, familiek erantzuteko zenbait galdera sartuko dira.
- Zuzendaritza taldearentzako galdera-sorta web-aren bidez erantzungo da. Beste iturri batzuetatik bilduta dagoen informazioa, ahal delarik, ez da eskatuko.

### 20. Zein mailatako informazioa lortuko da ED ebaluazioan kompetentzia bakoitzari buruz?

ED ebaluazioek ebaluatutako kompetentzietako informazioa eskaintzen dute: autonomia erkidegoko datuak, ikastetxeoak eta ikasle bakoitzarenak.

Hala ere, zenbait aldaketa izan dira kompetentzia batzuetako probak ikasleen *lagin batekin* egitearen ondorioz eta *idazmena* ikastetxeek barneko proba bezala ebaluatzearen ondorioz. Ondorengo taulan kompetentzia bakoitzean zer mailatako informazioa eskainiko den azaltzen da:

KOMPETENTZIA \ MAILA	E A E	IKASTETXEA	IKASLEA
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa			
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa			
Matematikarako kompetentzia			
Proba mistoa (zientzia + gizartea)			
Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa			
Bestelako kompetentziak			
Idazmena			



## 4. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN BARNEKO APLIKAZIOAZ

### 21. Zertan da ED ebaluazioaren barneko aplikazioa eta zeintzuk dira atal hori ikastetxeak gauzatzearen abantailak?

ED ebaluazioaren **barneko atala** ebaluatzea ikastetxearen ardura da, eta bi parte ditu:

- *Idazmenaren* ebaluazioa, derrigorrezkoa (euskara eta gaztelania ikasturte guztietan; ingelesa hiru ikasturtez behin).
- *Mintzamenaren* ebaluazioa, borondatezkoa.

Barneko atala ebaluatzeak honako honetarako aukera eskaintzen du:

- Oinarrizko dimentsio horiek Hezkuntza Sailak emandako ereduaren arabera ebaluatu.
- Ikastetxeak adierazgarritzat jotzen dituen alderdiak, interesgarritzat jotzen dituenak edo hezkuntza proiektuari hertsiki loturik daudenak ebaluatu.
- Formatuak edo gauzatzeko denborak mugatuak izateagatik, kanpoko probetan (papera eta arkatzez edo ordenagailuz) nekez ebaluatu litezkeen alderdiei buruzko informazioa lortu. Azken finean, ED ebaluazioa ikastetxeak bereganatzea errazten du, bere ebaluazio kulturean integratu baitezake.

ED ebaluazioaren hiru urteko ziklo berrian ikastetxeek *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* (euskara, gaztelania eta ingelesa) bi dimentsio ebaluatzeko ardura dute: *idazmena* eta *mintzamena*.

*Idazmena* konparagarritasun-bermeaz eta kalitate teknikoaz gauzatu ahal izateko, honako prozedura hau jarraituko da:

- Ikastetxeak ebaluaziorako proposamena jasoko du, zuzenketarako irizpideekin eta proba gauzatzeko jarraibideekin. Horrela, ikastetxe guztiek berdin gauzatu dituzte proba eta prozesua.
- Ikastetxeak derrigorrez aplikatu behar du proba kanpoko probaren ondorengo egunetan: ikastetxeak ikasleen idazkiak zuzenketarako irizpideen arabera zuzenduko ditu (horretarako Berritzegunearen laguntza ere eska dezake).
- ISEI-IVEIk proba-ereduak ikasleen lagin batekin erabiliko ditu. Lagin horretatik batez besteko puntuazioa aterako da eta baita proba-eredu zuzenduak eta azalduak ere, ikastetxeek erreferentzia gisa erabili ahal izango dituztenak.

*Mintzamenaren* ebaluazioaren eredu honako hau da:

- Proba borondatezkoa izango da. ISEI-IVEIk probetako batzuetan azpi-lagin bat jasotzeko aukera aztertuko du.
- Hala eskatzen duen ikastetxeak kompetentziaren dimentsio hori ebaluatzeko material guztia jasoko du: tresnak, irizpideak, jarraibideak, protokoloa, baliabide teknikoak... hizkuntza bakoitzerako.
- *Mintzamena* ebaluatzeko prozedura hori abian jartzen den lehenengo ikasturtean dimentsio horri buruzko berriarazo aholkularitza-prozesua antolatuko da hala eskatzen duten ikastetxeetan. Horretarako ikastetxeek laguntza zerbitzuen aholkua izango dute.



## 5. APLIKAZIO PROZESUAZ



### 24. Zein izango da proben iraupena?

Probek, orain arte bezala, bi eguneko iraupena izango dute. Ahal delarik, arratsaldean ez da probarik egingo. Helburua ikasleak gehiegi ez nekatzea da.

Proben eta galdera-sorten iraupena ondorengo taulan azaltzen da etapetako bakoitzean:

Oinarrizko kompetentziak LH 4		Proben iraupena
Hizkuntza-komunikazioa	Euskara	45 minutu
	Gaztelania	45 minutu
Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa / Zientzia-gizarteko proba		45 minutu
Matematikarako kompetentzia		45 minutu
Bestelako kompetentziak / Proba pilotuak / Askotariko laginak		35 minutu
Galdera-sorta		30 minutu

Oinarrizko kompetentziak DBH 2		Proben iraupena
Hizkuntza-komunikazioa	Euskara	55 minutu
	Gaztelania	55 minutu
Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa / Zientzia-gizarteko proba		55 minutu
Matematikarako kompetentzia		55 minutu
Bestelako kompetentziak / Proba pilotuak / Askotariko laginak		45 minutu
Galdera-sorta		30 minutu



## 25. Nola antolatuko dira probak?

Bi proba-egunetarako antolamendu bat proposatzen da jarraian. “3. proba” izenekoan –lehen egunean– askotariko probak txandakatuko dira: proba-pilotuak, aurretiaz ebaluatu ez den konpetentzia bateko proba (EAEko emaitzak bakarrik) edo *idazmena* ebaluatzeko ikasleen lagin batekin egiten den proba (ikus 6. orrialdeko eskema).

### LEHEN HEZKUNTZako 4. MAILA

LEHEN EGUNA	
Aurkezpena	10`
1. proba: Hizkuntza-komunik.	5`+45`
Atsedernaldi laburra	5`
2. proba: Matematika	5`+45`
Atsedernaldi luzea (jolasaldia)	20`-30`
3. proba: Askotarikoa	5`+35`
<b>GUZTIRA</b>	<b>3 ordu</b>

BIGARREN EGUNA	
4. proba: Hizkuntza-komunik	5`+45`
Atsedernaldi laburra	5`
5. proba (txandakakoa): Zientzia-gizartea / Ingelesa	5`+45`
Atsedernaldi luzea (jolasald.)	20`-30`
Galdera-sorta	30`
<b>GUZTIRA</b>	<b>2h 45`</b>

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZako 2. MAILA

LEHEN EGUNA	
Aurkezpena	10`
1. proba: Hizkuntza-komunik.	5`+55`
Atsedernaldi laburra	5`
2. proba: Matematika	5`+55`
Atsedernaldi luzea (jolasaldia)	20`-30`
3. proba: Askotarikoa	5`+45`
<b>GUZTIRA</b>	<b>3h 35`</b>

BIGARREN EGUNA	
4. proba: Hizkuntza-komunik	5`+55`
Atsedernaldi laburra	5`
5. proba (txandakakoa): Zientzia-gizartea / Ingelesa	5`+55`
Atsedernaldi luzea (jolasald.)	20`-30`
Galdera-sorta	30`
<b>GUZTIRA</b>	<b>3h 5`</b>

## 26. Ordenagailu bidezko proba.

Proba paperaren euskarrian egiteak honako arazoak dakartza: inprimatzeko gastu eta paper kontsumo itzela (ED11 ebaluazioan 4,42 milioi orrialde inprimatu ziren), eta lan eskerga probetan zehar materialak kudeatzeko eta banatzeko. Ondoren, gainera, material guztia digitalizatu behar da.

Horregatik erabaki da probak euskarri informatikoan egitea. Horretarako, besteak beste, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Aldez aurretik informatika-programa prestatzea eta behar den azpiegitura aztertzea.
- Bi etapetan Eskola 2. 0 ekipamendua erabiltzea: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek ikastetxeko beste ikastalde bateko ordenagailuak erabiliko dituzte.
- Euskarri informatikoan gauzatzen den lehenengo aplikazioan/urtean ahaleginak egingo dira errendimendu-probetan aldaketa handirik egon ez dadin (hau da, ikasturte guztietan ebaluatu diren konpetentzietako probak paperean egiten ziren proben antzekoak izango dira, baina pantailan ikusita). Gero, denborarekin, probak teknologia-ingurune berriak eskaintzen dituen aukerei egokitzen joango dira.

Proba horiek prestatzeko eta gauzatzeko ezinbestekoa izango da, inolako zalantzarik gabe, ikastetxearen ahalik eta lankidetzarik handiena.

